

Oñatiko emakumiak errekauntan

XX.mendeko komertzio txikixaren
etnografia feminista bat.



Zer ete da hau?

Nun dagoz emakumiak Oñatiko historian? Mendez mende andrazkuen ekarpenak era askotakuak izan dira. Aurten, Oñatiko Udalaren Selma Huxley I. bekie balixauaz, XX. mendeko komertzio txikixaren kasua aztertu dogu. Laburpen honen bittartez ikerketa lan hori oñatiarron esku jarri gura dogu.

Jone eta Irati

OÑATIKO EMAKUMIEN HISTORIARA HURRERAKETAN

XX.mendia, aguro esaten da, baiña ehun urte luze dira. Denbora dezente, oñatiarren bizimodua erabat aldaketako adiñakua; baita emakumiona be. Zela bizi izan ziran gure ama, amandre eta izekuak? Zelakua zan euren egunerokua? Nun egitten euen lana? Zela alkarketan ziran euren artian?

Hasteko, XX. mendeko Oñatiko emakumien bizimoduaz zertzelada batzuk emungo dittugu: mendian zihar eskolia, lana eta enplegua, familixia eta sozializaziñua aldatuaz zela fan dan ezagutu ezke-ro, hobeto entendiuko dalako komertzio txikixak ze inportantzia izan dauen bai herrixan, baita emakumion bizitzan be.

ESKOLIA

Mende hasieratik gaur arte gizon zein emakumien heziketiak inportantzia haundixa hartuaz fan da, baiña hori ezta gabetik goizera pasautako kontua izan.

Esandako moduan, XX. mende hasieran ikasketak etxaten gaur egungo inportantziarik emuten. Eskolia goi maillako herritarrai bakarrik emuten xaten eta normalena umiak etxian haztea izaten zan.

1909.urtian legez jami zan 6 urtetik 12 urte arteko umien derrigorrezko hezkuntza-eskubidia. Hala ta be, praktikan, klase altuko herritarrai bakarrik hartzen zittuain eskolak. Izan be, gurasuak seme-alabak lanerako bihar zittuain eta horregatik asko kostau zan legia bete eragittia.

Klase arteko ezberdintasunai jenero-bereizketia gehittu bihar xako: mutillen kasuan ohikuena zan ogibide bat ikasi eta lanian hasteia. Neskak "etxerako" gura ziranez, josten eta oiñarrizko matematika noziño batzuek jakittiakin nahikua zan.

Izan be, 20ko hamarkadan emundako aurrerapenen erakusgarri

dogu Oñatin, 1928tik 1937ra izandako Institutua, sasoi hartan Gipuzkuako bakarrenetakua. Hala, herriko emakume askok bertan ikasi eben eta euretako asko unibersidadera fan zan ondoren. Esaterako, Miren Galarzak farmazia ikasketak egin zittuen eta, hala, herriko lehenengo andrazko farmazeutikia izan zan.

1936ko uztaillian gerriak urten eben, eta hiru urte luzeren ostian frankistak irabazi eta Erregimen Zaharra berrezarri euen. Tartian Oñatiko institutua itxi eta Ley de Enseñanza Primaria ezarrirta hezkuntza mistua debekau zan. Sistema barrixagaz, gehixenak 12 urterekin eskolatik urteten euen. Gaiñera, neskak batxillerra egitteko errebalidia etarateko baldintza bat ifiñi zan 1937.urtian: Servicio Social-ian 6 hillabeteko kurtso bat egin bihar izatia.



Oñatiko bigarren maillako institutoko ikasliak 1929-1930 ikasturtian. Argazkixan hainbat emakume ikusi leike: irakasle bat edo beste kenduta, beste guztiak ikasliak dira.

17 eta 35 urte arteko emakumiak egin bihar euen 'Servicio Social'-a. Horren helburua zan emakumiak etxeko gobernurako gertaketa, formaziño politiko eta soziala emunaz horretarako. Hala, sukaldarirta, joskintza, plantxa eta etxeko ekonomian trebaketan zittuain. Erliijo katolikuaren formaziñua be jasoten euen, baita "formación del espíritu nacional" izenekua be. Derrigorrezkua zan zerbitzu hori egindda eukittia, oposiziñuetan parte hartu, tituluak eskuratu edo funtzionario publiko izateko. 1945etik aurrera gida-baimena edo pasaportia etarateko, edo kultur zein kirol alkarte edo antzekuetan parte hartu ahal izateko be biharrezkua zan.

Hala, andrazkuon heziketia etxeoandre ona izateko bideratuta eguen eta unibersidadera faten ziranak be zainketiarekin lotutako ikasketak egitten zittuain, bestiak beste, erizaintza, magisteritza...

Garapen garaixan (1959-1975) Europatik etozen haiziak eragin eben emakumien ikasketai gero eta inportantzia haundixagua emutia. Halaxe, Frankismo garaixan gizonen monopolio izandako enpresagintza alorrian emakumiak sartzen hasi ziran. 70eko hamarkadan administrari ikasketak modan ifiñi ziran eta Oñatin, herrixan bertan ikasketa honeik egitteko aukeria egonda, neska askok eta askok bide hori hartu eben.

LAN MERKAUA

Sarri pentsaitten danaren kontra, emakumiak etxian zein etxetik kanpora lan asko eginddakuak dira. Fan zan mende erdi arteko andrazkuak, euren borondatez edo borondatiaren kontra, 14-16 urterekin eskolia itxi eta familixiari lagunketako lanian hasten ziran: baserri, lantegi, tailer, denda, taberna zein etxetan kriada: "neskak lanera eta dirua etxerako, lagunketako. Familixiandako laguntzia eta gero zuretako pagia".

Enplegu hori ezkondu arte mantenitten euen eta behin ezkondu, enplegua izteko obligaziñua izan euen 1961 arte. Zergatik? Emakumia emazte eta ama bihurketan zan momentutik bere "misiño sakratua" zalako etxia eta etxeuak gobernau eta zainketia.

Lan merkauaren esparruan familixa-ardurak kontuan hartzeia ezinbestekua da emakumien historixiaren erradiografia justu bat egitteko: esandako moduan etxiaren eta etxeuak erantzule nagusixak amak izan dira: seme-alabak "bide zuzenetik" eruatia, garaixa aillegautakuan senarra edo emaztia topaitten lagunketia, senarraren "gustua" egittia, aitta-amak zainketia eta seme-alabak izatia, auzokuakin harremanak egittia, familixiaren izena "garbi" mantenittia, eta abar. Asko ziran garai hartako emakumien ardurak eta gehixenak eztira aittaketan.

Diruaren kontrola gizonak eukain, izan be, ezkondu aurretik irabazitako diruaren jabe aitta izaten zan, eta ezkondu ondoren gizona zan etxera dirua ekarten ebena. Hala, 1992. urtian, oraindik be, Oñatiko emakumien %50ek ez eukan inñolako diru-sarrerarik (Astigarraga, 1992: 25).



Txaketua tabernako zerbitzarixak (1953).

60ko hamarkadatik aurrera legiak baimendu eben emakumiak enplegua eukittia, baiña jente artian bestelako praktikia zan nagusi. Hortaz, 1970eko hamarkadara arte, enplegua eukain emakume helduak ezkonbagiak edo alargunak ziran; edota familixako negoziuan lan egitten euenak.

Negoziuak zittuain familixetako emakumiak "etxian" enplegau izan dira eta ezkondu arren bertan jarraitu ahal izan daue: "Lehen dendia emakume askondako salidia izan da. Ze fabrikak ta baeuzen, Pilak, Garay... baña generalmente gizonak lan itteko. Eta dendara, ba, samurrau!".

Erretirauta dagozen dendari askoren kasua da hori: etxetik oso hurrian lan egin daueiñez, modu fisikuan zein sinbolikuan, dendariak eta etxeandriak izan dira aldi berian. Horrela, merkataritzan emakumiak ezezagun izan dira gizartiaren eta legiaren aurrian.

Emakumiak lan munduan sartzeko baldintza bat egon da XX. mende osuan zihar eta hala dirau gaur egunian be: etxiaren arduria albora ez izteia. Hala, dendariak lanaldi bikoitza izan dauein emakume multzo zaharrena dira.

SOZIALIZAZIÑUA

Amaigabeko lan-kontratua zan matrimonixua eta kriadatzaia; edozein modutan be, eginkizun horreittan emakumiak betik topau izan dittue urtenbidiak lagun artian plazererako. Aittaketa-kua da, aisialdirik ez eguen sasoian, barriketan egitteko momentu horreik ze inportantzia eukain emakumien osasun eta garapen pertsonalerako: etxian edo etxetik gertu topatu izan daue alkar, josteko leku, banku, kale-izkiña edo mostradore inguruan.



Neskatilatan domekako planik normalena mendira fan edo erromerixan dantza egittia izaten zan. Beti be, mezatan egon ostian. Neska kuadrilla bat 1956ko Uribixako jaixetan



"etxian edo etxetik gertu topatu izan daue alkar, josteko leku, banku, kale-izkiña edo mostradore inguruan"

Emakumiak erekadutan ikerketan, eguneroko enkarguak egitteko garaixan sortzen ziran hartu emunez jardun dogu: etxetik urten edo kalera bajaitia amasa hartzeia letxe zan, ai ene! Enkarguen aitzakixiarekin, "eguneroko bueltatxua" egitten euen eta eskerrak honi! Beste batzuetan kontuak etxera etorten ziran, esneduna, ogi eta arrain-saltzaillien bittartez.

Lanlekua, tabernia edota dantzalekuak sozializaziñorako leku inportantiak izan dira, gizonendako erreserbautako lekuak; 70eko hamarkadatik aurrera, baiña, emakume gaztiak balorez okupau zittuain. Frankismuaren azken urtietako zabalketa kulturalaren

emaitza izan zan hori: eskubidedun hirittar sentitten hasiko dira emakumiak eta leku publiko eta pribauak aldatuko dittue.

Fan zan mendeko 100 urtai egindako errebaso azkar honetan ikusi leike emakumien egoera nabarmen aldatu dala. Emakumiok, emakume askoren burruka txiki zein handixai esker, eskubide asko irabazi dittugu.

Mende hasieran emakumien eskubidial egokixenian, egoeria oso desbardiña zan. Emakumiai jabetza eta herentzia jasoteko eskubidia ukaketan xaten, lanbide liberaletan jardutia eta soldata jasotia be bai. Gaiñera, legiak emakume ezkondua senarraren menpeko zala esaten eben, beraz, emakume ezkonduak ez eben autonomiarik lan egitteko, ezta soldatia izateko be. Senarraren baimen barik be ezin eben ekkitaldi publikuetan parte hartu.

1931n abixau zan II. Errepublikaren garaixan, emakumiak diskriminaitten zittuain lege asko balixo barik geratu ziran. Familixiari dagokixon beste hainbat erreforma be egin ziran: ezkontza zibilla eta dibortziua legeztatu ziran. Eta batez be, 1931ko urrixan, eztabaida askoren ostian, botua emuteko eskubide unibertsala onartu zan. Emakumien eta gizonezkuen bardinttasuna lege arluan jarri izanak ez eben, baiña, praktikan emakumien diskriminaziñua desagertu eragin.

Francoren diktadurapeian, berriz, lege horreik guztiak balixo barik geratu ziran. Esaterako, abortua legez kanpo geratu zan, edo senarrak emaziaren ohelagunak hiltia be baimendu zan. Gaiñera, Errepublika garaiko legezko banaketak eta bigarren ezkontzak desegin zittuain, eta ezkontza zibillak erlijioso bihurtu zittuain.

Lan-merkauan jarraikiati emakumiai libre izateko gogua eta kultura aldetik janzteko eta pertsona aldetik hazteko arnasa emun osten. Jarraitu esango dogu, ze emakumiak betik sartu izan dira lan-merkauan, baiña ondoren etara egin zittuain. Bestalde, unibersidadian eta herrigintzan parte hartzen hasiko diran emakumiak aire barrixa ekarriko daue herrira.

1975ian Francisco Franco hil zanian esperantza eta ilusiño haundiko garaixak izan ziran, baita eskabide euskaltzale eta feminista haundikuak be. 1978an Konstituziño demokratikua jarri zan eta urte berian desegin ziran hainbat lege diskriminatzaille, bestiak beste, adulteriuaren eta antisorgailluen aurkakuak. Urte batzuk lehenago, 1975ian, emakumiak kontu korronte propiua izatia ukaketan eben legia be desegin zan. Aldi berian, irakaskuntza mistua berriz jarri zan, eta leku danetan, haurtzaindegixak eta planifikaziño-zentruak zabalketiari ekin xakon. Hala ta be, gure herrixan, 1990eko hamarkada arte itxoin bihar izan zan zerbitzu horreik izateko.

Atzera begiraketan konturaketan gara azken urtietako garaipe-nak eztirala hutsaren hurrenguk izan. Gure buruari preguntaitten gotsan orain dala urtebete: nundik etara daue indarra emakumiak bazterketa egoera etenbagiai aurre egin eta herrixari ordaineziñezko ekarpenak egitteko? Ameraun baten eran aliantza ekonomikuak zein sozialak josiz, merkadu, denda eta auzuetako lagun-harremanen bittartez, eta ukaketan xaten espazio publikuaren bazterrak, mostradoriak, defendauaz.

KOMERZIO TXIKIXAREN ETNOGRAFIA

Komerzio txikixak hurreko kontsumo guniak dira; bestiak beste, familixa-negoziuak, kooperatibak edo ekonomatuak. Gure ikerketan etxez etxeko salmenta be aintzat hartu dogu.

Komerzio txikixa sektoretan banatu dogu: janari-dendak, jantzi-dendak, ostalaritza eta zerbitzuak. Datozen lerruetan arlo bakoitzaren berezittasunen laburpena aurkeztuko dotsuegu.

JANARI-DENDAK

Denda gehixenak janari salerosketarako izan dira; produktu freskuak kontserbaitteko gaurko teknologiarik ez egunez, janarixa egunero erosten zan.



Egaña janari-dendiaren barrukaldia. 20ko hamarkadan erei ebein Francisca Muruak eta Julian Egañak, ondoren euren alaba Maria Pilarrek eta Maria Rosariok eruan ebein dendia 90eko hamarkadan itxi arte. Bertan kafja tostaitten ebein, eta auzotarren esanetan egundoko usaiña egoten zan.

Denetariko dendak ziran haundixenak eta ikusgarrixenak, esaterako: Lukasena, Sabasena, Milikuarena, Egañarena, Juanitosiana, Kontxesena, Carmenena eta abar luze bat. Horreittako batzuk autozerbitzu egin ziran gero.

Autozerbitzuak eta ultramarinuak, arraiña eta okelia kenduta, era guztietako janarixa saltzen euen.

Mende hasieran janari-dendak saltzen zittuain produktuak kiloko zakutan erosten zittuain eta bezeroak gramuak bihar izaten zittuainez, paketetan ifiñi bihar izaten zan guztia. Erosliak dendarixari eskatu bihar izaten otsan guztia eta tratu horrek bixen arteko harremana estuketan eben.

Mendiaren azken hamarkadatik ereitten fan diran supermerkau haundixak egundoko kaltia egin doste sektore honi, ixixa desagertu eragin arte. Gaur egun era honetako denda bakarra dako-gu herrixan: Errekaldeko dendia.

Bestalde, eguneroko produktu horreiz gain produktu gehixago, eta berezixaguak, saltzen zittuain dendak be baziran herrixan. Jua-

nitosia, esaterako, 1911kua da eta "zan Corte Ingles modukua, baiña txixixian!". Danetik saltzen zan:

"jana, konserbak...bakaillaua, kafja... jatekua danetik! Espezieiak be bai. Eta gero txoko batian delicatessiak: trufak potetxotan, saltxitxa potia, pateua untaittekua (...) Eta gero eguen drogerixia, papelerixia eta parafarmazia esaten xakon gauzak be bai. Eta mostradoriaren azpitan puntillak, bordauak (...) Gero ferreterixia: bisagrak, zarrailak, ultziak... Barrikatan, anisa eta pattarra, eta, bestekaldian ardaux goxua eta jereza. (...) kolonia be bai, granelian. (...) Aurrerago hari berezixak eta joerixia be bai!" **(ARG)**




Juanitosa dendia barrutik (1992)

Azken erreforman janarixak kendu eta etxerako material eta osagarrixakin bakarrik geratu ziran. Aurtengo urtian, 2019xan, herriko denda zaharrenak be, atiak itxiko ditte.

Berdura eta fruta-dendak mendiaren azken laurdenetik aurrera zabaldu ziran. Aurretik fruta eta berdurak bertako base-ritarrak eruatzen zittuain denetariko dendetara: sasoiak sasoiako fruta eta berdurak jaten ziran, eta Oñatin jasotakuaz aparte gutxi kontsumitzen zan: noizian behin meloien edo naranja-kamioia

etorrenian. 1980ko hamarkadan hasiko da jentia fruta gehixago jaten eta ordurako Espaiñiako Estatu osoko hornitzailliak aillegauko dira herrira.

Okela dendak: karnizeruen esparrua gizonetzkuena izan da mende osuan zihar eta horren pruebia da ixixa jabe guztiak gizonetzkuak izan dirala. Salbuespena izan zan Benita Oñate, hirugixar eta olixo-saltzaillia: 1890 eta 1900 bittartian euki eben dendia. Mende oso bat igaro zan berriro emakume-jabiak agertu arte.



Maritxu Maiztegi eta Miguel Lizarralden karnazixia (1958-2001)

Negoziuak gizonen izenian egon arren, karnazerixa gehixenetan emakumiak lan egin daue, gehixenak familixa-negoziuak izan diralako: guri aillegau xakun testigantzak mende erdittik aurrerakuak dira eta horrein artian batzuk aittaketiarren: Miguel Lizarralde eta Maritxu Maiztegi, Tomas eta Anita Lizarralde, Juan Mari Garai eta Milagros Letamendi, Joxe Plazaola 'Pototo' eta Maritxu, Patri eta Asun, eta abar:

Peskaderixena berezitasun haundiko arlua da: udal-erregistruan ezтира ageri mende erdira arte. Izan be, ordura arte kale-rik kale saltzen euen arraiña kostaldeko emakumiak: txantxote mondraguetarra eta bermeania gogoraketan dittue herrittarrak: "Sardina viva! Viva!" harein oihuak oraindiok goguan dittue. Mende erdialdian plaza egunetan Guadalupe Uribarri eta Xaximira berdura plazaren sarreran jarten ziran.

1960ko hamarkadatik aurrera, furgonetiarekin etxez etxe saltzen euen batzuren batzuek: Antonio Fernandez eta Angelines Pato senar-emaztiak, baita Ramon Moyua eta Marcelina Letek, esaterako.

1960ko hamarkada amaieran, kaleko salmentiarekin amaittu gura izan eben Udalak eta berdura plazako postu fijuetara lekualdatu zittuain. Ordurako kaliau peskaderixak be baziran: Eustaki Bergara eta Plaxida Lazkanok Atzeko kaliau; Prexen eta Gregori Madina-beitiak, eta Lucas Igartuak San Antonen; eta Carmen Gutierrez eta Lupe Urteaga ama-alabak Maiatzak Ieko plazan.

Panaderixa eta gozogillien sektorian tradiziño haundiko negoziauak dittugu Oñatin. Panadero-lana gizonen lana izan zan XX. mendian eta hala izaten jarraitetan dau. Hala be, salmentan emakumezkuak egon izan dira.

Ogixa etxez etxe saldu izan da: oiñez, zaldiz eta orain autoz. Udal-erregistruan begiratuta mende hasieran panaderixa guztiak kale nagusixetan egozela agerketan dira. Batzuk, gaur egunera arte be aillegau xaku, hala nola, Irizar, Eskolatxo edo Egaña. Badakigu hala be, auzuetan be baegozela errotak eta ogixa egitten zala.



Eskolatxo panaderixako partitzailliak. Argazkixa 30eko hamarkadaku da erdiko neskatillia Ana Uribetxeberria da, bera ibiltten zan herrixan etxez etxe ogixa partitten, Zubillagaraino bizikletan be faten zan.

Gozogillien sektorian negozio asko egon dira mende hasieratik. Eta jakiña denez, txokolateriak, konfitteriak eta pasteleriak ezagunak ziran Oñatin. Mende hasierako herriko pasteleria ezagunenetako bat plazako Garaikoetxearena izan zan, egitten zittuen bolau eta peregrino pastelengatik famaia. Geruago, Garaikoetxearena itxi ostian, erei ziran Umerezena eta Garciarena Kale Barrixan. Ederrak zian elaua, ojaldría eta brazojittanua...

Atal honetan Barkillerua be aittatu gura dogu. 1930eko hamarkadan Pedro Lopez eta Margarita Lopez andra-gizonak Oñatira etorri eta Kantabriako jaixoterrixan barkillua egitteko tradiziñua hona ekarri euen. Hortik datorkixo izena: Barkillero. Horrez gain, mantekazko elaua, koreanuak eta bestelako gozuak be egitten zittuain. Harein postu ibilttarixa herriko txoko askotan jarri izan daue: Arantzazun meza nagusi egunetan, auzuetako erromerixetan, baitta Urbixan be! Azken aldixan kiosko aldeko plazako aldamen batian eguen etxetxo batian gozokixak saltzen jardun euen, 2005ian itxi arte.



Furgonetiarekin baiño lehenago karotxo batekin saltzen zittuain euren produktua. Argazkixa 30eko hamarkadakua da: bertan Margarita Lopez eta bere primia ageri dira.



Barkilleruaren furgonetia Arantzazun gozokixak saltzen.

Etxez etxeko salmenta eta merkaua: Salerosketarako plaza ezagunena ganadu-ferixia, eta fruta- eta berdura-plazia izan dira. XX. mendia baiño lehenagotik datorren ohitturia da ferixia: zapatutan egitten zan, herriko plazan. Ganadu-ferixia, berriz, Santa Marina plazan izaten zan. Bertako zein inguruetakoko saltzailliak etorten ziran.



Argazki zaharren bilduma - Oñatiko Udal-Arxihoa

Mende hasierako plazako merkauren argazkixa.

Españiako Estatu osuan, gerra ostian, merkatuak jasotari ekin xakon eta Oñatin berdura plazia jaso ondoren horra lekualdatu zan ferixia: eguaztenetan eta zapatu goizetan egingo zan harrezkero. 1990. urtian oraingo plaza barrixa egin euen, gaur egun ezaguketan doguna, eta hara aldatu zittuain saltzaille guztiak.

Berdura plazan postuak izendauta egozen, eta bestiak beste, berdura-saltzailliak, landare-saltzaillia, karnizeruak, peskaderixia, oiha-saltzaillia, kinkallerua eta karamelerua etorten ziran. Janari-denda eukaiñak be jarri zeikiein postua.

Baserritarren frutia eta berduria saltzeko betiko lekua berdura plazia izan da: lurrak emundako "soberakiñai" etekiña etarateko modua izan da. Etzan, beraz, baserrixen diru-itturri nagusixa, baiña bai asteko juntaleku eta berba ordurik inportantiena.

JANTZI-DENDAK

Janztekuen multzuan sartu dittugu sastriak eta joskiñak, tela-dendak eta erropa-dendak, mertzerixak eta zapata-dendak.

Jantzigintzari dagokixonez, aldaketa haundixak izan ziran XX.mendian. Mende hasieran erropak eskuz egitten zittuain jostun eta joskiñak. Sastriak ez euen oihaalik saltzen, bakarrik josi egitten euen. Hala, oiha bezeroak erosten eben eta joskiñari eruaten otsan. Horreik erosteko herrixan denda bakan batzuk egozen. Herriko ezagunenak Santos Echeverriarena eta Rita Enparantzarena ziran.

Oihalak ugariketan hasi ahala, zerbitzuaz gaiñera, dendan oihaalak be saltzen hasi ziran jantzigilliak. 1960ko hamarkadatik aurrera egindako erropia aillegau zan herrira eta horrek joskin eta jantzigillien lana asko urrittu eben: "inddako erropia hasi zanian, joskiñak ez geukan lanik. Ezer formalik ez geukan!". Hala, joskin profesionalak lan barik geraketan hasi ziran. Askoren hautua izan zan ogibidia izteia. Beste batzuek, berriz, mertzerixia edo umiendako arropa-dendia ifiñi euen. Aldaketa honeikin esparru hau ziharo emakumezkuena egin zan.

Mende amaieriaz batera, garraio eta komunikaziño aurrerape-nak lagunduta, hirixetan jarri ziran marka haundixetako dendetan erosteko ohitturia zabalketan hasi zan. Horrek kalte haundixa egin otsan sektoriari: askok negoziuak itxi bihar izan zittuain eta itxi bihar izan ez eueiñak ahalegin haundixaz egin xaue aurre aldaketa honi. Mende barrixarekin eta teknologia barrixen zabalketiarekin, lehiakide barrixa agertu xate: Internet. Barrikuntza honen aurrian ardurata dagoz merkatari asko. Multinazionalen aurrian euren zerbitzua defendiu gura daue, hurreko zerbitzu pertsonalizaua emunaz.

Mertzerixak 1925. urtian agerketan dira lehenengo Udalerregistruan. Urtaza mertzerixia 'Kirriñena', 1929. urtian erei euen Maritxu eta Tibur Urtaza ahizpak. 1950. urtetik aurrera ugarittu ziran, eta, batez be, 1970 urtian bizi izan euen garapen haundixena. Koloriak agerketia, pijamak eta geruago kortseterixia, horreik danak gustora hartutako barrikuntzak izan ziran:

“Akordaitten gara zela etorri zan jenerua: fajas y sujetadores, en color fucsia, rosa flamenco, amarillo y azul celeste. ¡Fue el boom! Todo el mundo quería aquello. Porque de llevar algo-doizko gauza korrientiak, zurixak edo color carne, ba, fue un cambio radical”.



Urtaza mertzerixia, Kirriñ oñatiarrontzat, Maritxu eta Tibur Urtaza ahizpak erei ebein 1929 urtain. Argazkixan bi ahizpak eta euran iloba Consuelo Etxeberria 30eko hamarkadan.

Zapata-dendak: Zapatarixak inportantiak izan ziran XX. mende erdira arte: zapatak, abarkak baita alpargatak be eskuz egiten zittuain. Batez be gizezkuak ziran bertako langilliak; emakumezkuak bakanak izan ziran: 1910ian Jacinta Garayoa eta 1950ian

M^a Carmen Ibarro Oleaga ageri xaku Udal-erregistruan. Kuriosidade moduan esan, abarkak eta alpargatak beste denda askotan be saltzen zirala: janari-dendetan, karnazerixetan, ardausaltzaillarenian edo bizargiñenian, esaterako.

1950eko hamarkadatik aurrera egindako zapatak zabalketan hasi ziran eta zapata-modelo bakanak izatetik aukera zabalagua izatera pasau giñan: “lehen eukiko gittuen hiru edo lau klase: gizonen zapata klasikuak eta emakumienak takoitxuarekin eta planuak”.

Ugarittasunak eta material barrixen asmakuntzak zapaten salmentan jarduten euenai mesede egin osten. Zapatak egin eta konponketan euenen lana, berriz, gainbehera etorri zan. Artisautzagintzatik salmentarako saltua emakume langillien mesederako izan zan: sektorian sartu ziran, saltzaille moduan. 1970. urtian has-ten dira emakumiak jabe diran negoziuak agerketan.

Jeneralian, ibilbide luzeko negoziuak izan dira zapata-dendak. Ezagunenetako bat, Olalde ‘Silleroena’ da. Bestalde, zapata-konpon-tzaillaren ogibidiak iraun egin dau, horren maestria, Kantue ize-neko dendia, Kaio zapatarixak lan egin euen leku berian daguena.

OSTALARITZA

Oñatin taberna, kafetegi, jatetxe eta ostatu ugari izan dittugu bai erdigunian bai auzuetan. Kafe dotoriak, eta langille-taberna xumeaguak, guztiak izan dira herriko saltsa eta gorabeheren testigu.

Oso normalak ziran taberna-jatetxe-ostatuak, langille etorribarri, biajante eta kamioneruen ostatu ziran. Establezimendu horreit-tan denpora luzian iraun dauein hurreko harremanak sortu ziran ostalari eta bezeruen artian. “Etorten ziran lehen, ba, Extremaduratik eta Galiziako jentia-eta lanera? Ba, hemen ospedaitten ziran! Ba, igual hillabetiak edo batzuk urtiak be bail!”. Aittaketakua da 60ko hamarkadako etorkiñak etxe partikularretako geletan behartu eueilla ostatu.



Patxi Elorza argazki funtsa-Oñatiko Udal Artxiboa

Naparena tabernia Naparruatik etorritako Josefa Bustok erei eben, alargun eta bi seme-alaben karguan geratu zanian; gero haren seme-alaba Margaritak eta Rosendok eruan ebein tabernia 1980 arte. Argazkixan, Margarita tabernan.

Auzuetako tabernak, auzuen erdigunian egon izan dira, auzo bakoitzian bat behintzat, kasu askotan denda eta estanku zerbitzua be eskiñi izan daue. Jabetzari dagokixonez, 1980ko hamarkada arte emakumiak jabe ziranak oso gutxi ziran. Eta hala izan danian gehixenetan alargunak ziran. Hala ta guztiz be, ostalaritzan emakume askok lana egin daue, zerbitzari edo sukaldari moduan.

Taberna eta jatetxiak, egunerokuan, gizonen eremua izan dira eta zerbitzari gehixenak emakume ezkondu bagiak ziran. Gizonen li-zunkerixia eta eraso sexistetatik beren burua defenditzen ikasi euen, derrigorrian:

“ni akordaitten naiz pasaitten nitzanian neskatillatxua, eguen han gizon bat betik tabernan. Eta betik itten nostan “kuleroik badakozu?” eta betik gonía jasoten. Eta neretako zan... betik pasaitten neben atxintxika baten”.

Horregatik, tabernan lanian ibiltteko nortasun haundikua izan bihar zala dixue:

“Eta egun baten iñ nostan hola xirri, ta nik tenedoría eskuetan ta zasta, tenedoríakin begi onduan! “Ikutu ez iñ! Gauzak geldi dauzenian geldi jare! Mostradoran dauena motxailia izan bida! Harek aurpegixa biadaul!”.

Sarrerán aittatu dogun moduan, lanerako ezpazan, emakumiak tabernetan berandu arte etziran gizonen pare ibilli. Kafetegixetara sartzen hasi ziran lehenengo, 70eko hamarkadan: emakumiak eurak ahaldundu ahala emun euen pausua.

Aisialdi-modelo aldaketiak zuzenian eragin otsan ostalaritzari: industrializaziñuak pultzatuta etorri zan susperraldi ekonomikuarekin, oñatiarron ekonomiak nabarmen egin eben hobera. Horrek eragin zuzena izan eben tabernetan, oso urte oparuak izan ziran.

Gaur egungo egoera, berriz, dixueiñez, nahikua txarra da, asteburutako girua be beheara egin dauelako. Asteburuetan kanpora urteteko joeria nagusittu da azken hamarkadan eta horrek ostalaritza nabarmen kaltetu dau.



Umerez pastelerixia 1962. urtian erei eben Pilar Lazkanoiturburuk. Argazkixan, Pilar, Maria Jesus zerbitzarixarekin batera.

ZERBITZUAK

Zerbitzuen sektoriak eztau produktuen salerosketarekin egitten negoziua, langillia ezagutza edo eskulana salduta baiño. Hala be, gremixuak produktuaren salmentarekin osatu izan dittue negoziuak azkenengo hamarkadetan.

Farmaziak: lizentzia berezixa bihar izan daueñez betik, euren kopurua mugatua izan da. 1970eko hamarkadara arte bi, Kale Zaharrian eta Kale Barrixan bana. Hiru ondoren, eta 1990eko hamarkadan laugarrena, San Lorentzo auzuan.

1960ko hamarkadara arte farmazeutiko guztiak gizonezkuak izan ziran. Hala eta be, emakumien bittartez pasau izan dira lizentziak: Jose Vicente Zurutzaren alabia Fermin Yurritarekin ezkondu zan, eta ondorioz, Yurrita jaunak jaso eben lizentzia. Hori erretirau zanian, Miren Galarza Zuluetak jarraitu eben. Herriko lehen emakumezkua eta bakarra izan zan farmazia baten arduradun Rosario Anduaga hasi arte. XXI. mendian arlua modu nabarmenian andrien eskutara pasau da, emakumezkuak goi-maillako ikasketak egitteko oztopuak gaidiketiarekin batera: gaur egun lau farmaziatik hiru emakumien jabetzakuak dira.

Elektrizista eta etxetresnak: Elektrizidadiak suari lekua

hartzen fan zan XX. mendian zihar, hori dala eta, 1970eko hamarkadarako elektrizista ugari eguen herrixan; guztiak gizonak. Aittatu bihar da, hala eta guztiz be, elektrizistak etxez etxe lan egitten euen bittartian, dendan emakumiak jarduten euela: Felix Arregiren denda, esaterako, Maria Pilar Murgiondo eta laguntzaille bat ibiltten ziran.

Bizikleta alkilerrak: gerra aurretik iñor gutxik eukan bizikleta bat etxian, alkilau egitten ziran: lanera fateko gizonak, edo, jolaserako, umiak. Alkilerra esaten xakon zerbitzuak garraibide bat eskintten eben, automobilla aillgau bitartteko urtietan.

Herrixan alkiler mordua eguen, bakarra, baiña, emakumezko jabe-duna: Angeles Aldanondo Murua (Kale Barriko Mendizabalenuka). Baiña, gehixenetan, alkilerra eta konponketia, dana bat izaten zanez, gizonak jardun euen lanbide honetan.

Estanko eta liburu-dendak: Egunkarixak, liburuak, aldizkarixak, seilluak, sobriak edo boligrafuak estankuetan saldu izan dira betitik: 1940xan Estanku Zaharrian (Plaza, 10) eta Altunarenian. Geruago, baita Ibarrondorenian eta Irizarrenian be.

Saltoki honeik Estatuko lizentzia berezixa ekuain, hala, gerraostian Erregimen frankistak desjabeketa bat egin eben: Estanku Zaharreko lizentzia balixobagetu eta Irizar estankuari emun xakon. Naparrena tabernia be desjabetu euen urte batzuetan eta saltoki askotan izan ziran sakeuak, bestiak beste Juanitosianian.

Guztiak gizonen jabetzan egon arren, jakiña da emakumiak lan egin izan daueilla horreittan. Hala, 1970-80ko hamarkadetan guztiak emakumien jabetzakuak izatera pasau ziran: Maria Cristina Ibarrondo Oleaga, Concepcion Ugarte Aguirre Estanku zahar, Pilar Altuna Lazkanoiturburu eta Gloria Irizar Zumalde jatorrizko jabilen alabak izan dira. Horreittako batzuen alabak be jarraiketan daue gaurko egunian.

Errekadistak: errekadistena ogibide berezixa izan da, eta, aldi berian oso inportantia mende guztian zihar. Herrixan erosterik ez eguena hiriburuetatik ekarri eta bertako produktuak hiriburuetara eruaten zittuain. Horrela etaraten euen bizimodua. Errekadista ugari egon da mendian zihar Oñatin: Bilborako, Bittorixarako eta Donostiarako bana. Mendiaren lehenengo erdixan negozio hone-tan ziharduain gehixenak emakumiak ziran. Hala nola, Eugeni Sukia eta Julia Uriarte. Lehena, gerra denporan jasotako errepreziñuari aurre egitteko Donostiarako errekadista moduan ibilli zan. Bigarre-na, senarraren heriotzaren ostian Bittorixarako errekadista bihurtu zan bizimodua aurrera etara ahal izateko. Azken hamarkadetan sektoria gizonen eskuetara pasauaz fan da.

Bizartegi eta pelukerixak

Bizargiñak bizarra mozteia eukain ogibide. Hala, mende hasieran gizezkuak bakarrik ziran bezeruak, emakumiak ez ekauin-eta ulia apainketako ohitturarik. Emakumiak euren dirurik ez izatiak eta edertasunaren beste ikuspegi bat eukittiak eragiña eukan jokabide horretan: "Ule luzia eruaten zan, moño bat egin eta aurrera!". Gizonezkuak, berriz, sarri faten ziran pelukerixara, horrek erakus-ten dau apainketako eguen ohitturia: "Normala izaten zan hillian behin ulia mozteia. Gizonak be oso presumiduak... gure izaten ebein fatia txukun". Mende erdiko industrializaziño prozesuak teknologia barrixak ekarri zittuen bizarra mozteko, eta horrek bizar-tegixen beherakada nabarmena ekarri eben: Sesiñena, Ugarte eta lon dira gaur egunian geraketan diran lekuko bakarrik.

Emakumiak susperraldi ekonomikuarekin batera, etxetik kanpo lanian hasi eta euren dirua irabazten hasi ahala, ekingo dira pelukerixetara sar-tzen: "Cuando la mujer empezó a introducirse en el mundo laboral. Hortxen hasi zan pelukerixara gehixago etorten. Eta ez bakarrik hori. Janzkerak be bai. En los años 50-60 hor hasten da gauzia aldaketan...".

Garapen garaixan, komunikabidiak eta ziniak eragindda, femeni-notasun eta edertasun modelo barrixak hasi ziran sartzen geure herrixan. Moda barrixak agerketiarekin batera, koloretako jantzixak, makillajak eta ule orrazkerak inportantzia hartu euen. Horrek

edertasunera bideratutako zerbitzuen gorakadia ekarriko dau, baita emakumezko pelukerixen agerpena be:

"Emakumiak eurak be bai, euren dirua irabazten hasi ziranian, ba... ia, ba, lanian,... ta ia umiak be eskoletara-ta, faten gehixago ta,... dana aldatu zan! Hor etorri zan tremendako kanbixua. Andrak gehixago urteten, andrak tabernetara sartzen... Hori dana batera etorri zan! Ba, ia hasten zara fabrikan lanian, ia kafe bat hartzen dozu lagunakin... ia dana ekarten dau! Ia uliari be gehixago begiraketan zatzu!".

Lehenengo pelukerak Kale Zaharreko Ugarte ahizpak, Patrua Kaleko Baltategi eta Ramon Irizarreko Juli izan ziran. Denporiagaz, andrazkuandako pelukerixa ugari erei dira herrixan. Gaurko egunian, emakumezkuak nagusi dira sektorian.

Edertasun-zentruak, edertasunaren boomarekin sortu ziran, emakumien edertasun-modelo barrixari erantzuteko. Hasiera beretik emakumiak nagusi izan dira sektorian bai bezeruak, baita langilliai dagokionez be.



1965. urtian erei ebein Maria Jesus eta Mari Carmen Urrutia ahizpak Garbi drogerixia Kale Zaharian. Bertan, drogerixa zerbitzuaz gain estetikiakin zerikusixa eukain hainbat produktu eta zerbitzu be emuten ebein. Geruago, 1975. urtian, Etxaluzen Urrutia erropa-dendia zabaldu ebein. Argazkixan, Garbiko langilliak.

1962an Amaya Moyua Suquiaren gimnasia (Atzeko Kale, 24) lehenengua izan zan herrixan. Bittori eta Sabina Igartua ahizpak pelukerixia eta arpegiko tratamenduen zerbitzua ifiñi euen.

Osasunari lotutako zentruak, gorputz osasuntsua izateko arduria zabalketiarekin batera agertu dira: eko-dendia, yoga eskolia eta abar. Baita fisioterapia, podologia, nutrizionista, optikia, logopedia eta hagin-klinikak. Horreittako asko ikasketak dakoin emakumiak zabaldua. Gaur egun komerzio txikiko azpi-sektore emunkorrena da.

Arotzetatik dekoraziñora

Lehenago herriko arotz eta ebanistak enkarguz egitten zittuain etxietako zoruak, bentanak, atiak, muebliak eta abar. Barueko arotzak izan ziran ezagunenak: Pio eta Migel Elorza, Rufino Moia... Etxe azpitan taillerrak ekuain 1950eko hamarkada amaieran Euskadi Etorbidia egittiak etxe ingurua eta ogibidia erabat aldatu osten arte. Arotzen seme-alabak hamaika negozio ifiñi zittuain gero Etorbidian: Antton tabernia, Cartonajes Arregi, Moia eta Arregi mueble-dendak, Marixuren autozerbitzua eta Mari Carmenen hari-dendia 'Piorena', esaterako.

1960ko hamarkadatik aurrera, berriz, arotz eta ebanisten lana mueble industrialak ordezkatu euen. Mueble-denda ugari egon zan eta negozio emunkorrak izan dira: Moia, Arregi, Idigoras-Aranburu, Pakita eta Zelaia.

XXI.mendian dekoraziñua profesionalizau egin da, eta hortaz, muebliak saltzetik erreforma eta dekoraziño-aholkularitza emutera pasau dira herriko dekoratzailliak: 2000an Santa Mariña plazako Barue etxeko dekoratzailliak izan ziran sektorian lehenenguk Oñatin, etxiaren bebaruan dendia jarritta. Harrezkero emakume gazte askok hartu daue bide bera.

KOMERZIO TXIKIXAREN EZAUGARRIXAK:

Gure herriko komerziuari begiratuta ikusi geikien moduan, denda, taberna eta zerbitzu gehixenak familixa-negoziuak izan dira, batez be, 80ko hamarkada artekuak.

Hau da, negozioia familixa buruaren izenian egon arren, bertan familixako senide askok parte hartzen euen: andra-gizonak, seme-alabak, edota beste senitartekuak be.



Hiru emakume belaunaldi dendan: Maria Garai, Rexu Letamendi eta Irantzu Elortza (Jokin umiendako erropa-dendia).

Negoziua etxiaren luzapen bat zan: gehixenak familixiaren etxe azpitan egoten ziran. Hurrian egotiek aukeria emun doste emakume dendarixai dendako lana eta etxeko lanak uztarketako: sarrittan dendak ostian eguen sukaldian gertaketan euen bazkarixa, bertan bazkaldu eta, bertatik, seme-alaben arduria hartzeia be samurragua egitten xaten.

Azken fiñian, emakumiai XX. mende osuan zihar jarri xaten betebihar eta paperetik larregi urrinddu barik egin zeikiein lana zan. Orainddiok gehixago, industria edo kriadatzaia ez letxe, dendetako lana emakume ezkonduendako lanbide aproposa moduan ikusten eben jentiak.

Emakumiendako dendan lan egittiak ez eben esan gura, baiña, ekonomia aldetik independentiak ziranik. Izan be, familixa negoziuak izan diranez, dendako ekonomia eta etxekua bat izan dira: dendan irabazten zana kajuera faten zan eta familixako senidiak ez euen beren lanagatik soldatarik jasoten: irabaztiko dirua kajuera xoian eta gastu guztiak bertatik ordainketan ziran. Dendan lan egiten euen etxekua ez euen soldata fijorik, baiña familixa-etxian bizi ziran bez bertako gastuak ordaindduta ekuain. Hala, bihar izaten eueiñian “kajuetik” dirua hartzen euen: “Han ez euen iñor kobraiten ebenik. Han danak kajatik urtetan eben. Han ez euen soldatarik eta ezer: Etxekua eta etxerako, eta listo. Gure amak esaten oskun “Neskatillak, dirua bihar badozue neri ez ibilli eskaketan, hor dakozue kajia ta hartu!”. Hala eta be, kajuetik norberaren gastuetarako dirua hartzea, familixa danetan etzan bardin ikusitta egon.

1980ko hamarkada ezkeroko emakume jabien presentzia haunditu zan. Batetik, legez emakumiai ondasunak izatia baimena emun ostelako Estatuak. Bestetik, orduan errelebua hartutako alabak euren izenian ifiñi eueillako negoziuak. Azkenik, emakumien esku egozen azpisektore horretako zerbitzu askok gorakadia izan euelako, eta horreik emakumiak erei eueiñez, hasieratik bertatik egon dira euren izenian.

ERRELEBUA

Tradiziño eta ibilbide luzeko negozio ugari dogu Oñatin, belaudiz belaunaldi euren zerbitzuak eskiñi doskueiñak herritarroi. Familixako negoziuaren jarraipena, baiña, ezta betik borondatez hartua izan.

1960ko hamarkadara arte negoziua izan dauein emakumiak alabak lotu izan dittue zeregin horren jarraipenerako. Bihartu izan dittue alabak, denda edo tabernan segittera, eta bide batez etxian geldiketara. Izan be, familixa-negoziua eta etxia soka beraren bi hari-mutur izan dira. Hala, gaur egun erretirauta dagozen emakume gehixenak eta erretiraitteko puntuan dagozenak etziran euren borondatez lanian hasi, euren amen agindduari jarraituaz baiño.

Norberaren soldatia jaso barik, gaiñera, lehenengo urtietan.

70eko hamarkada arte emundako errelebuetan, obligaziño hori eztaue kargatzat hartzen, konformidadez baiño. Jokabide horren arrazoia da euren belaunaldiko emakume ezkonduak enplegurik ez eukailla eta ikasketari be inportantziarik etxatela emuten: “Haxe egin bihar nebela pentsau eta kitto. Orduan ni etxian gelditu nintzan eta ez eguen etxetik faterik, bat betik etxian aitta-amak zainketako-eta”.

Alabak etxian eta, bihartuta, dendiarekin jarraitetako eguen joeriak egoera estuan ifiñi eben emakume asko. Erresistentzia-mailla ez bardiñak erakutsi zittuain emakumiak eta ama guztiak ez euen bardin jokatu. Kasu batzuetan, esan bihar da, emakume gaztiak euren bizitza gogoz kontrako edo gura ez eguen bidetik eruatera bihurtu zittuaila. 1970eko hamarkada ezkeroko, egindako errelebuetan emakume bakoitzaren gogua argixago aittatu izan da: jeneralian, emakumien ikasketa eta lan-eskubidiak errespetaiten hasiko da gizartia.

Trantsiziñoak eta 1980ko hamarkadak ekarri zittuain ideia eta baliho barrixak jokera hori desagertu eragin euen. Ikasketen aukera zabaldu eta lan egitteko eskubidia zabaldu zan emakumiendako. Dendia ja etzan emakumiak lanian hasteko modu bakarra, gehixago esango dogu orainddiok, Oñatin bertan industriarako joera haundixa eguen.

Era berian, belaunaldi barrixaren plazaraketiaz bat familixa-negoziuaren funtzionamendua zaildduko da: etxeko eta dendako ekonomia bateratuaren adierazle zan kajoia ja ezta egokixa. Izan be, euren lanaren irabazixak familixa osorako izatia euren independentziarendako zelabaitteko mugia zan. Eta arrazoi horregatik, emakume askok ez euen gurasuen errelebua hartu.

Errelebuaren ohitturia motelketan fan da, beraz, bai gizonezkuen artian bai emakumezkuen artian be. Mende amaieran, kasu askotan gurasuak eztaue gura izan seme-alabak segitterik. Hareinddako

beste bizimodu bat gura izan daue eta inportantzia emun xako seme-alaba bakoitzaren ikasketai eta euren bizi-proiektu propioa garaketari. Baiña, merkatarixen seme-alabak komerziuan hezi izan dira, hori bizi izan daue, eta alaba batzuek tradiziñuarekin jarraiketako bidia hartu daue:

“Ba, txikittatik gura barik ikasi egitten dozu. Txikittan gustau egitten xaten, kajak atara eta... Orain 5 urte hasiko nintzan serixo, baiña sartu-urtenak egin dot, nerian be egin dot lana (...) nik euki dot zalantzak, nik eztoz gura euran moduan denpora libre barik: nik gura dot asteburu bat libre eukittia. Baiña sentimentamente dendiak tiraketan dost”.

Ezta kasualidadia gaur egunian tradiziño familiarrarekin jarraiketan dauein bakarrenetakuak emakumezkuak izatia. Familiarekin dakozen harremanak, aitajun-amandrien eta gurasuen lanari jarraipena emun gura izatiak, eta holako arrazoiak neskak erakarten dittu, mutillak baiño gehixago.

Hala be, gaur egun, herriko komerzio txikixaren errelebua aidian dago. Ikusi besterik eztago, urte luzez euren zerbitzuak emun ostian, aurten pertsiana itxiko dauien dendak: Kirriñeneko mertzerixia, Baio erropa-dendia, Arantza mertzerixia edo Juanitosiana.

KOMERZIO TXIKIXAREN EKARPENAK:

Babeslekua

Tratu familiarra, hurrekua: hau da komerzio txikixaren bezeruak gehixen baloraitten dauein ezaugarria. Gertutasun honen ostian ezkutaitten dan zaintza eta berotasuna baloraitten daue: “zer, ondo zauz? Gaizki zauz? Kafia biozu? Pasau barrura!”. Zaintza bere zentzurik zabalenian entendiuta: lehenik eta behin, hurrian egotiak eskintten dauen konfiantzia, eta zintzotasuna aittaketakuak dira, baita zerbitzu pertsonalizaua be: “lehen klientia zan zeure etxeko bat. Ezin zeike engaiñau”. Azken baten, neurrira eta gustoz emundako zerbitzua: “el mimo, el cariño, que entran por la puerta, y ya sabes lo que quiere, lo que puede”.

Horrez gain, dendak juntaleku izaera haundixa izan daue. Alkargune inportantiak izan dira. Herriko kontuen gaiñeko informaziñua jaso eta emuteko leku aproposak iñungo duda barik. Herriko kontuez aparte, gai pertsonalaguen gaiñian be berba egitten zan:

“el comercio de antes era como más familiar: preguntabas por los hijos, si sabías que alguien tuvo familia o que alguien estaba enfermo pues le mandabas algo de la tienda: galletas o ponche...”.

Dendetan dendari edota beste bezeruakin egindako barriketaldixak, emakume askorendako sare sozial inportantiak dira. Batez be etxekoandria izan eta lagun edo ezagun askorik ezta konarendako: “komerziuak bizitza haundixa emun doste emakume nagusixai. Ze bestela sartzen zara etxian eta egon, egon, eta egon”.

Eguneroko harremanen bidez sortutako loturak, sarri, alkar babes-teko sariak sortzia be ekarri dau. Alkar zainketia, entzutia eta laguntza-harremanak sortu dira dendan inguruan: “eta batzuentzako da... desahogo edo. Zuri kontaitten dotsue euran gauzak ta, bueno, zuk segiu egitten zatzu ta, bueno,... ia lasaixau...”.

Dendarixak oso kontziente dira errealidade honen gaiñian, egiten dauein ekarpen sozialaz. Merkatarari askoren agotik entzun leikien moduan, dendari izatiaz gain, psikologuak be baziran: “lehen ez euen psikologo biharrik, porque en cada tienda había una!”.

Apuntia, trukia, probaitteko eruaten izteia:

Oñatiko merkatarixak herriko familixai laguntasun ekonomiko haundixa emun dostei: dendari eta eroslien arteko harremana zaintza-harreman bat izan da, alkarri entzun, eta alkarri lagunketaku, ahal dan neurrian. Bide beretik, unian uneko zailtasunen aurrian, diruz be lagunketako joera haundixa egon da dendarixen partetik. “Hacíamos también de bancos” esaeriak erakusten dauenez merkatarixak banketxe edo prestamista-lanak egitten zittuain. Hala, gose edo eskasia urtietan, euren bezeruakin zittuain faborezko tratuak herrixari egindako ekarpen ekonomikuaren erakusle dira.

Faborezko tratu normalena, eta komertzio txikixaren identidade sinbolo haundixenetakua, zorretan emutia edo apuntia izan da: "apuntau itten zan:"ezin dotsut pagau e, zapatuan gizonak kobrauko dau eta ekarrikotsut" konfiantzan..." edo "kinkenixua kobraiten ebeñian etorten zian dendara pagaittera hillian in ebein zorra ahal ebein lekuraino. Askok pagau daue 20 urtera".

Momentuan dirurik ez eukanak be kontsumiu ahal izateko aukeria emun izan da eta familia askorendako aurrera egitteko ezinbestekua izan da. Kasu guztietan, aittaketakua da, merkatarixai fabore bat eskaketako momentuan aurpegixa emuten eueiñak emakumiak zirala.

Apuntiaz gain, trukia edo epeka ordainketako praktikak be oso zabaldua egon dira komertzio txikixaren egunerokuan. Trukia batez be baserritarrekin ebalten zan, esku dirurik izan ez arren trukerako produktu asko zittuain-eta. Epeka ordainketia, berriz, herrittarrak produktu karuaguak erosi ahal izateko bidia izan da.

Janzteko produktuen kasuan normala izan da etxera probaitteko eruaten izteia. Praktika horrek eztako fabore ekonomikua. Baiña, dendari-bezero arteko konfiantziaren erakuslia da.

1960ko hamarkada ezkerro, industriak eraginddako aberastasun ekonomikuaren ondorixoz, momentuan ordainketako ohitturia nagusittuaz fan da pittinka-pittinka. Baiña aittatutako faborezko tratu horreik eztira guztiz desagertu. 1950 eta 1960ko hamarkadetara arte praktika jenerala zana, gaur egun aurrezkirik eztakoiñendako salbuespeneko estrategia ekonomikua da.

Bestalde, geografia aldetik Oñati moduko herri baztertu batian, eta mobitteko gaurko egogittasunik bariko sasoiari, herritik urtetia etzan normala, ezta samurra be. Biharrezko produktuak herrixan bertan eskuratu ahal izatia ezinbestekua izan da. Beraz, ezin leikixo ukatu oñatiarro biharrezko ondasun eta zerbitzuak herrittik bertatik urten barik kontsumiteteo eskiñi doskun aukeria. Bestalde, herrixan ez egozen produktuak eskuraketako errekadistak egon dira.

Baserritarren produkziñua herriko merkauan sartzeko bittartekua be izan da komertzio txikixa. Dendak bittartekari-lanak egitten zittuain, baserritarren produktuak (berdurak, frutia, gaztaia, eta abar) dendan salduaz, komisiño baten truke, edo duhan kasu askotan.

Kaleko bizitza

Hirugarren ekarpena izan da espaziala: komertzio txikixak Oñati-ko erdigune historikuari eta auzuai identidadia eta "bizitza" emun doste. Dendak herrixari eginddako ekarpena zein izan dan pre-guntaitterunzkuan elkarrizketatu guztiak bat etorri dira: herrixari bizittasuna emuten xaue dendak. Herri eta auzo bat bizirik egon dedin elementu inportantia da, hortaz, merkataritza: argittasuna, jentiarren fan-etorrixa, eta segurtasuna emuten xau kaliari. Kalien zaintza, eta kale horre in ebalera publikua eta ereixa garantizaitteko elementua da eta.



Jesus Mari Arzuaga funtsa - Oñatiko Udal Artxiboa

Eskerrak eta konbittia:

Eskerrik asko ikerketa-lan hau aurrera etarateko lagundu doskuzuen guztioi, gehixen bat, alkarrizketatutako lagun danoiri zuen testigantzak gurekin konpartittiagatik.

Honekin batera esan, gaixan gehixago sakondu gura duzuenok gure ikerketa osua jasoten dauen liburua irakurtera konbidaiten zauegula. Eta, batez be, gusto haundiz gertatu dogun erakusketia ikusteko konbittia egitten dotsuegu:

Maiatzian, Bakardade Ama kaleko Egañaren janari-dendia izandakuaren persiania jasoko dogu, mostradore inguruan, XX. mende-ko Oñatiko komertzio txikixaren mundura hurreraketako.



SELMA
HUXLEY
BARKHAM



OÑATI
dabilen herria